

ERRITMOARI JARRAIKI

Apirilaren 29ko Dantzaren Nazioarteko Eguna aitzakiatzat harturik, estilo ezberdinetan trebaturiko bi euskal dantzarirekin egin dugu hitzordua. Ez dugu aditu arteko solasa oztopatu nahi izan, eta elkar elkarrizketatzeko aukera eman diegu. Hona emaitza.

GARAZI ETXABURU

“Dantzaren ekarpena ez da jendartean gehiegi zabaldu”

GALDERAK: IKER KARRERA

Dantza garaikidearena eremu oso zabala da eta dantza estilo desberdin asko barneratzen ditu: garaikide fisikoa, ‘reléase’-a, antzerki-dantza, dantza kontzeptuala... Zeinetan sentitzen zara erosoan?

Reléasea, antzerki dantza eta koreografia fisikoak ditut gustukoak.

Dantzas konpainia oso proposamen interesgarria iruditzen zait. Nolakoa da bertako eguneroko dinamika? Eta zein da bertan izandako koreografoen artean zure gustukoena?

Dantzas Konpainia dantza munduan lehen enplegua lortzeko plataforma da. Koreografo ezberdinekin egiten dugu lan, eta gainera, bira luzeak egiten ditugu. Egunean zortzi ordu inguru aritzen

gara lanean, eta asteburu askotan emanaldiak izaten ditugu. Bertatik pasa diren koreografoen artean, Jone San Martín, Lukas Timulak, Itzik Galili, Jacek Przybyłowicz... aipatuko nituzke. Oso estilo ezberdinak dituzte, eta interesgarriena zera da, bakoltzetik hoberena hartu eta ikastea.

Zeintzuk dira zure konpainia gustukoena eta zergatik?

Gauthier Dance, Forsythe, Batsheva... Oso errepertorio ona dute guztiek, eta bereziki, dantzarik bikainak.

Dantza ikasteaz gain, zerbait gehiago ikasten duzu? Dantza bakarrik ikasten ari bazara, beste ikasketetan sakontzea, hala nola, artean, historian, argazkigintzan, filosofian... beharrezkoa dela uste duzu dantzarik batentzat?

Ez, dantzas gain ez dut beste ezer ikasten. Nire us-tez, egokiena gorputzak uzten didan arte dantzan




Garazi Etxaburu (1993)

Hiru urterekin hasi zen dantzan ondarrutarra, amak balleteko eskoletara eraman zuenean. Gerora jazza probatu bazuen ere, bietako bat aukeratu behar eta Gasteizko dantza kontserbatoriora jo zuen hamabost urterekin balleta lantzerako. Dantza garaikidea azaletik behatu ostean, estilo horretan espezializatutako Dantzas prestakuntza konpainian sartu zen laz, bi urteko ikasketen prozesua osatzera. Bere bidea aurkitu du bertan.

Iker Karrera (1985)

Hondarribiarraren dantza ibilbidean ere eragin handia izan du haren amak, azken honek herrian duen dantza eskolan klaseak jasotzen hasi baitzen lau urterekin. Hamaseirekin Madrilerako joan zen jardunaldi batzuetan parte hartzerako, eta ikusitako maila eta energiak txundituta, bertara lekualdatzea erabaki zuen ikus-entzunezko ikasketak egin eta dantzan hezterako. Telebista saioretan, bideo klipetan, iragarkietan parte hartu du, eta nazioartean nahiz Madrilen eskolak ematen dihardu.



JOSU TRUJERBA LENA / BOSTOK PHOTO

jarraitzea da, orain egin ditzakedan gauzak ezin-
go ditudalako hogei urte barru egin. Baina ikas-
ketek ez dute esfortzu fisikorik eskatzen, eta beti
izango dut horretarako denbora.

**Eszenatoki batean dantzan ari zarenean, zer du-
zu gustukoaren? Eta zer ez duzu atsegin?**

Eszenatoki gaineko momenturik onena amaiera
da, ikusle goaren txaloak entzun eta norbera egin-
dako lanarekin gustura sentitzen den unea. Mo-
menturik txarra, aldiz, hasi aurreko minutuak di-
ra, urduri egoten baikara, azken orduko entsegu
txikiak egiten, mugimenduak errepasatzen...

**Beste zein dantza estilo ikastea gustatuko litzai-
zuke?**

Dantza garaikideaz gain hip hopa, salsa, antzerki
dantza eta halakoetan sakontzea gustatuko litzai-
dake.

**Gaur egun, dantzaren munduan estilo eta tekni-
ka asko fusionatzen ari dira; zein ekarpen uste
duzu egiten diela dantza garaikideak beste esti-
loei?**

Ekarpen bat baino gehiago, dantza garaikidea gaur
egungo dantza estilo bat dela uste dut. Beste estilo
askorekin fusionatu daiteke, eta freskotasuna ematen
die. Beti ere, kalitatez eskaintzen bada.

**Zer aldatu beharko genuke, gaur egun, dantza
garaikideak merezi duen zabalkundea lortu de-
zan?**

Dantzaren ekarpena ez da jendartean gehiegi za-
baldu, nahiz eta ez den aukera faltagatik izan.
Konpainia asko daude, gu barne, oso espektakulu
hurbilak eta publikoarentzat, nolabait esatearren,
ikuserrazak egiten dituztenak, baita dantza ezagu-
tzen ez duten ikus-entzuleentzat ere. Beraz, jen-
dea hurbiltzen hasi dadin joera kulturalak aldatzea
litzateke onena, baina oraingoz oso zaila da.

**Non eta nola ikusten duzu zure burua hogei urte
barru? Zure konpainia zuzentzen, adibidez?**

Ez dakit non egongo naizen, baina asko gustatuko
litzaidake datozen urteetan hainbat konpainiatan
aritzea. Eta gero gerokoak, beti ere, dantzari lotu-
rik. Eta zergatik ez, beharbada konpainiaren bate-
ko zuzendari gisa!